

ANTIPODETAKO PERLA BERDEA

M.J. Barandiaran & I. Irazabalbeitia

Urte gutxi dira gure herriko janari-denda eta azoketan, azal marroixka eta iletsua eta barnea esmeralda koloreko haragia duten fruituak ikusten hasi ginela. Izen bitxia zeukaten eta urrutitik zetozen. Hasiera batean errezeloz dastatu bagenituen ere, haien zapore eta fragantziak maiteminduak gelditu ginen. Hutsik edo xerretan ebakita eta txokolate beroz bustita edo mazedonian edo... zoragarriak dira benetan. *Actinida deliciosa* zuhaitzaren fruituaz ari gara: *kiwia*.

Irauitza moduko zerbait izan da kiwiara, inork ezagutzen ez zuen zerbaitetik, jateko dotore eta garesti guztietan ekidin ezinezko postre sofistikatu bilakatu da

Duela hiru belaunaldi guztiz ezezaguna zen bere jatorriko Txinatik at, egun Zeelanda Berriko uza nagusia da eta bere hazkuntza zabaltzen ari da edonon. Nola lortu du arrakasta sonatu hori? Egungun historia apur bat. Beste uza arruntetan gertatzen ez den bezala kiwiaren sustrai historikoak ondo ezagutzen dira. Kiwiak Hego Txinako Yangtze ibaiaren ibarrean sortu ziren. Bertan izen desberdinez ezagutzen da *yangtao* edo *mihontao* esaterako. Kiwia ezagutu zituzten lehenengo mendebaldetarrek Txinako *arakatz* edo *tximino-udare* izena eman zioten.

Landareen, hosto erorkorreko ahien moduko zuhaixka zurtsua da, 9 m-ko altuera har dezake. Oso itxura zabalba du, bere bihotz-itxureko hostoek tamaina galanta har dezakete eta krema koloreko loreak ematen ditu. Basoan, zaintzarik gabe, laurogei bat urte bizi

dezake

Txinatarrek, basoan hazten ziren landareak ehundaka urtetan ustiratu dituzte bai fruitua jatez baita fruituraren ardoa eginez ere. Hala eta guztiz ere, inoiz ez ziren kiwiaren hazkuntzaz arduratu.

Kiwiaren kolore berde deigarria klorofilari zor zaio

Europako botanikoez 1847. ean deskribatu zuten landarea lehenengo aldiz. Hain zuzen, mendearen hasiera arte ez zen Europara ailekiko ekarri. 1904. ean Britania Handian aldatu ziren lehenengo kiwiak edo Txinako arakatzak, garai hartan esaten zitzaizkien bezala. Tamalez, ekarritako landarren aukeraketa dese-

gokia egin zelako edo, fruiturik eman zeraten ez zen lortu Kontutan hartu behar da kiwiondoa landare diolkoa dela hots, lore ar eta lore emeak zuhaitz desberdinetan daudela Britainia Handira eramandako ale guztiak sexu berekoak ziren nonbait. Antzeko arazoak izan zituzten kiwiondoa EEBB-tan sartarazten saiatu zirenak.

Zeelandarrak adur hobegokoak izan ziren *Alexander Allison* izeneko laborari batek 1904 ean Txinatik haziak lortu zituen eta landare gutxi batzuk hazten jadetxi zuen. Landare hauek 1910 ean beren lehenengo fruituak eman zituzten. Allison-en lanaren ondorioz gero eta jende gehiago hartu zuen interesa kiwietan. Hala eta guztiz ere 1960 urterarte



Itxaron egin behar izan zen kiwiaren iraultza gertatzeko. Murtzaindegi batean lan egiten zuen bi gizonek, *Bruno Just* eta *Hayward Wright*-ek, ale egokiagoak lortzeko kiwien selekzioari ekin ziotenean hasi zen iraultza.

Just eta Wright-ek merkatal potentzial handia zuten kiwi barietateak aurkitu zituzten. Maetako onenari Hayward izena eman zioten eta hau da egun munduan zehar gehien aldatzen den barietatea.

Bi gizon hauek zortea izan zutela ezin uka, ez bait da erraza 1904.ean Zeelanda Berrira iritsitako hazi gutxi horietan oinarriturik -basakiwiondoaren ekarpen genetikoaren zati nimmimo bat- honelako emaitz oparoak lortzea.

Kiwiaren merkatal booma izugarria izan da 1930 urterarte ez ziren merkatal helburua zituzten lehenengo kiwiak aldatu. 1950.ean 13 hektarea kiwidi zeuden soil-soilik 50 tona kiwi ekoizten zituztenak.

1984.ean 62 500 tona ekoiztu ziren Zeelanda Berrian 1991 erako 300.000 bat tona ekoiztuko direla aurrezaten da.

Kiwi C bitamina gehien duenetako fruta da: 105 mg/100 g

Kiwiak luze ihardun dugu orain artean, baina esateke daukagu nola sortu zitzaion izena 1950.eko hamarkadaren erdialdean, Neozeelandar laborariak EEBB-tara lehenengo kiwi-fruituak esportatzen hasi zirenean amerikar inportatzaileari Txinako arakatz izena ez zitzaion gustatu, luze eta sentzugabekoa erziti zion. Esportatzaile Zeelandarrak orduan, meloixto (*melonette*) izena proposatu zion eta azkenik kiwi (*kiwifruit*). Izenak jo egin zuen. Zeelanda Berriko hegazti famatuaren izena erabiliz ukitu exotikoa eman nahi izan zitzaion frutari eta lortu ere.

Hemendik aurrera historia ezaguna da. Kiwiondoak mundu guztian zabaldu dira, Txina bertan hazten hasiak dira jadanik. Ea gu euskaldunok noiz dakiogun fruitu delizioso honen hazkuntzari Gure herriko klima egokienetakoa omen da gainera kiwi-hazkuntzarako.

Kiwi landare dioikoa da, hots lore ar eta emeak landare desberdinetan daude. Honek zailtasun bereziak ipintzen dizkio kiwiaren hazkuntzari. Pentsatzen badugu esaterako, oso fruitu ederak eta oparotasun handiz ematen dituen kiwiondo bat lortu dugula, guk nahi izango dugu ale horren aberastasun genetikoa bere ondorengoek mantentzen eta belaunaldietan irautea. Autopolinizatutako landareetan, hots lore ar eta emeak landare berberan daudenekotan, hau erraza da kanpoko material genetikorik sartzen ez delako. Landare dioikoetan aitzitik, sexualki ugaltzen badira, beste landare baten material genetikoa hartu behar dute eta ondorioz lortutako hazietan jatorrizko eta material berriaren hibridoa jadetako da. Honek, pikutara bidal ditzake lortutako hasierako ale horren ezaugarri onak.

Honek zaildu egiten du kiwi-aren kalitate-maila gorabeherarik gabe iraundu eta mantentzea. Egun egiten ari diren zenbait ikerketek honi iturri egin nahi diote, lore ar eta emeak landare berdinean izango dituzten kiwiondoak lortuz.

Testuan, 1990 erako 300 000 tona inguru kiwi ekoiztuko direla esan dugu. Zer esan nahi dute zifra hauek? asko ala gutxi al da? Egigun gonbaraketaxo bat Sagarrak gehien ekoizten direnetako fruituak dira hauen 37 milioi tona ekoizten dira urtero. Platanoak eta zitrikoak inguruan ibiltzen zaizkio. Halere, gailurrean mahatsa, dago, 65 milioi tonelada 1983 ean, parte handi bat ardo egiteko erabili zen noski.

Liseriketa laguntzen duen entzima bat du kiwiak: proteasa bat haragien degradazioa laguntzen duena.

Kiwi-ekoizle handiena Zeelanda Berria da dudarik gabe. 1984 ean 62 500 tona ekoiztu zituen eta hauetatik 48.000 esportatu Japonia eta Europara batik bat. Ondorengo ekoizlea Estatu Batuak dira, 14 000 tona, hauetatik 5 000 esportatu egiten dituzte. Europara etorrira Italian 7 000 tona ekoiztu ziren 1983 ean eta Frantzian 2.500 inguru.

